

KANALAK

Denda fisiko bat irekiko dugu, horrela bezeroak gurekin hitz egitera etorri ahalko dira eta haien dudak gurekin partekatuko dituzte. Gu gure aldetik ahal dugun guztia jarriko dugu bezeroak gustura egon daitezen. Bertan ere izena emateko aukera izango dute, dohainik. Gainera, honek Interneta erabiltzen ez dakitenei lagundu diezaieke. Bezeroak izena ematen duen unetik aurrera gurekin egongo dira harremanetan edozein gauza esateko. Enpresa batek bezero bat aukeratzen duenean gu izango gara berria emateaz arduratuko garenak.

Gaur egun sare sozialak arrakasta handia dute gizartean, eta jende askok erabiltzen ditu. Badakigu interneten bidez gure enpresa oso erraz hazi daitekeela eta, honen ondorioz, gure enpresari buruzko iragarkiak jartzeko aukera gehiago izango ditugu. "Instagram"-en eta "twitter"-en kontu bat irekiko dugu eta bertan gure enpresari buruzko berriak eta informazioa jendeari helarazteko.

Gure dendan eta web orrialdean hizkuntza ezberdinetan komunikatuko gara, hasiera batean, web orrialdea euskaraz agertuko dela erabaki dugu, baina bezeroek nahi



duten hizkuntza aukeratu ahalko dute web orrialdean bertan. Ondoren, denda fisikoan elkarrizketa gure aldetik ere euskaraz hasiko da, baina euskaraz komunikatzeko zailtasunak badituzte edo beste hizkuntza batean hitz egitea nahiago badute guri jakinarazi eta hizkuntza aldatuko dugu dana ongi uler dezaten.

Gu jarriko gara kontaktuan enpresekin gure zerbitzuari buruz jakin dezaten. Ondoren, gauzak argitu nahi badituzte gure dendara etortzeko aukera izango dute, eta gu bertan saiatuko gara informazio guztia ematen eta enpresa batekin kontratu bat izateko jartzen ditugun baldintzak komunikatuko dizkiegu. Azkenik, dana ondo ulertuta uzteko denbora izan ez badugu, gure telefono zenbakiaren bidez, korreoaren bidez edo gure web orrialdetik kontaktuan jartzeko aukera izango dute.

Gure lana ez da amaitzen bezero batek lanbide bat lortzen duen momentuan, izan ere, pertsona horretaz arduratzeko beharra dugu eta eskaintzen dugun zerbitzua gustukoa izateko bezeroarekin mantenduko gara kontaktuan bere kontratua bukatzen den arte. Guk eskaintzen duguna lanbide bat lortzea denez, bezero bakoitza bere kabuz joango da lanera, gu ez gara horretaz arduratuko.

Gure helburua bezeroa pozik mantentzea denez, gurekin kontaktuan jartzen direnean, edozein arazori aurre egiteko lehendabizi guri komunikatu beharko digutela jakinaraziko diegu eta saiatuko gara bezeroa bere konfiantza guregan jartzen lortzea. Konfiantza hau handitzeko, beraiekin egongo gara kontaktuan edozein kanal erabiliz bere kontratua bukatzen den momenturaino.

